

# URNIETAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA

2021eko urria



# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	2
2. ARAUDI MARKOA.....	3
3. METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	5
3.1. Oinarri metodologikoak .....	5
3.2. Prozesuaren urratsak.....	6
4. EBALUAZIO ETA DIAGNOSTIKO FASEAREN ONDORIO NAGUSIAK: ETORKIZUNEKO ERRONKAK .....	8
5. LEHENTASUNAK.....	10
6. PLANAREN GARAPENERAKO ETA LANERAKO OINARRIAK .....	11
7. PLANA GARATU AHAL IZATEKO EZINBESTEKO BERMEAK.....	12
8. PLANAREN INDARRALDIA .....	13
9. ESKU-HARTZE ARDATZAK.....	14
9.1. Gobernu ona.....	14
9.2. Emakumeen ahalduntzea.....	14
9.3. Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea .....	15
9.4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.....	16
10. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK .....	18
11. EKINTZA-PLANA.....	20
12. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA .....	35
12.1. Garapen eta kudeaketarako egiturak .....	35
12.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak .....	39
12.3. Planaren ebaluazio-sistema .....	39
12.3.1. Inpaktu adierazleak .....	41
12.3.2. Urteko kudeaketa planak.....	44
12.3.3. Planaren segimendua .....	45
13. PLANAREN KOMUNIKAZIOA .....	47

## 1. SARRERA

Urnietako Udalak badaramatza urte batzuk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen. Horren ondorio dira diseinatu eta garatu dituen berdintasunerako bi Planak. Berdintasunerako II. Planak 2017-2020 indarraldia zuen, beraz, agortu berri dago. Lau urteko ibilbide horren ostean inflexio puntu batean dago Urnietako Udala, berdintasun teknikaria kontratatu berri baitu. Honek berdintasun politiketan aldaketa kualitatiboa egiteko baldintzak ekarriko ditu Udalera.

Egoera honetan, azken urteetako lana ebaluatu, hortik ikaspenak atera, egungo egoera analizatu eta herriak berdintasunaren eremuan dituen erronka nagusiak identifikatzeko ariketa egin dugu. Prozesu horretatik ateratakoan oinarrituta, eta baldintza berriak aintzat hartuta, hurrengo urteetarako bideorria izango den Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko prozesua abiatu dugu, Udaleko langileekin zein herriko norbanako eta eragileekin elkarlanean; denon artean denontzat izango den Plana sortzeko asmoz.

Txosten honetan, Urnietako Udalaren hurrengo berdintasun politikak gidatuko dituen Berdintasunerako Plana jaso dugu. Aurkibidean argi ikus daitekeen bezala, Planak ekintza konkretuak zehazteaz gain, lanerako marko oso bati egiten dio erreferentzia, prozesu osoan zehar parte hartu dutenek adostasunez landutakoa. Hauek dira txostenak jasotzen dituen atalak:

1. Sarrera
2. Araudi markoa
3. Metodologia eta laneko prozesuaren deskribapena
4. Ebaluazio eta diagnostiko fasearen ondorio nagusiak: etorkizuneko erronkak
5. Lehentasunak
6. Planaren garapenerako eta lanerako oinarriak
7. Plana garatu ahal izateko ezinbesteko bermeak
8. Planaren indarraldia
9. Esku-hartze ardatzak
10. Helburu estrategikoak eta operatiboak
11. Ekintza-plana
12. Planaren kudeaketa-sistema
13. Planaren komunikazioa

## 2. ARAUDI MARKOA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAE-ko 4/2005 Legeak** hasierako adierazpenean jasotzen duen moduan, Emakumearen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailan berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: “printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”.

Beste alde batetik, **1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna** indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

**Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan**, berriz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea** onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartzeari bultzatzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako **berdintasuna sustatzeko zazpi plan onetsi ditu**. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Zehazki, Emakundek 2018ko ekainean onetsitako **EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Planean**, XI. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jardura bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko sei planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespenez irekitzen duen markoan.

**EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** bere egin du berdintasunerako gobernantzaren ildotik lan egin beharra, berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte, eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. VII. Planean, mainstreaming-a eta gobernantza oinarrian daude. Baina, horretaz aparte, beste hiru ardatz ere bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak: emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Apustua, une honetan, zera da, **berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea**, eta hori da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren **otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** xedea. Lege horrek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoa -egiturazkoa eta unibertsala- gizartetik desagerraraz dadin. 4/2005 Legea aitzindaria izan zen; izan ere, lege berean berdintasunerako eta indarkeriaren aurkako politikaren garapena jasotzen zuen.

Gaur egun, 4/2005 Legea eguneratzeko Lege Proiektua Gasteizko Parlamentuaren esku dago, eztabaidatzeko eta ekarpenak biltzeko. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista Erauzteko Lege Proiektua** indarrean jartzeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazioek dituzten eginkizunak gehitzea ekarriko du, baita emakumeen aurkako indarkeria matxistari osotasunean ekitea ere.

Lurralde-mailara etorrira, kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu berri duen **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023)**. Emakundek EAErako diseinatutako Planaren egitura jarraitzen badu ere, izaera propioa du eta aintzat hartu beharra dago.

Norabide horretan, Urnietako Udalak II. Plana diseinatu zuen 2016an eta ordutik hona garatzeko lanetan aritu da. Orain, Planaren ebaluazioaren bidez beharrak non dauden identifikatu ostean, eta berdintasun teknikari berriaren kontratazioarekin batera, III. Plan honen eskutik hurrengo urteetarako bide-orria marraztu nahi izan du Urnietako Udalak, herri berdinzalea izateko bidean urratsak modu antolatuan ematen jarraitu ahal izateko.

### 3. METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

#### 3.1. Oinarri metodologikoak

Urnietako prozesua metodologikoki diseinatzeko **IAP** (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen dugun **metodologiaren oinarriak hartu ditugu kontuan**. Xedea talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea da.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei gizarte-sareak berreraikitzeak aukera ematen die, alegia, hausnarketaren bidez **gizarte-sare horiek eraldatzeko aukera**. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika berezien erabilera.

Jarraian, Urnietako Berdintasun Sailak eta Elhuyarrek prozesu hau garatzeko kontuan hartu dituzten oinarriak edo printzipioak jasotzen dira:

- **Parte-hartzea**: Genero-gaien inguruan hausnarketa egin eta eztabaidatzea izan da prozesu honen xedea, emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak eraikuntza kolektiboaren bidez definitzea. Horrela, bidean parte-hartzaileek prozesua bere egitea izan da asmoa.
- **Malgutasuna**: prozesuak iraun duen bitartean parte-hartzaileek beharrezko jo dituzten aldaketak/moldaketak proposatzeko aukera izan dute.
- **Komunikazioa**: komunikazioa beharrezkoa da herritarrei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidatzeko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab. Horregatik, prozesuaren hasieratik garrantzia handia eman diogu gai honi eta Udaleko komunikazio arduradunarekin eskuz esku lanean jardun dugu.
- **Aniztasuna**: garrantzitsua da, berdintasun-gaiak jorratzen ditugunean, era guztietako herritarrak erakarri eta inplikatzeko moduko prozesua diseinatzea, eta, beraz, aniztasuna kontuan hartzeko ahalegina egin dugu.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna**: egitasmoak genero-ikuspegia bermatu du ezinbestean, bai prozesu-ikuspegitik eta baita emaitzaren ikuspegitik ere. Horrek esan nahi du, emakumezkoen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak, irtenbideak... modu espezifikoan aintzat hartu direla. Horretarako hainbat alderdi zaindu ditugu: parte hartzeko tokiak eta ordutegiak, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatuko dituzten laneko dinamikak martxan jartzea, etab.

### 3.2. Prozesuaren urratsak

Urnietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan berria diseinatzeko prozesua 2021eko otsailean abiatu genuen. Jarraian, hilabete hauetan ikuspegi metodologiko batetik prozesuaren urratsak jasota daude:

#### 0. Aurre-lanak:

- Talde Eragilea eratu dugu, prozesuari etengabeko segimendua egiteko. Honako hauek osatzen dugu Talde eragilea: berdintasun teknikariak, berdintasun zinegotziak eta Elhuyarreko teknikariak. Lehenengo bileretan berdintasun teknikaria lanean hasi gabe zegoenez Gizartekintzako arduraduna izan zen rol hau bete zuena, bera baitzen berdintasuneko arduradun teknikoak. Bileretako batean komunikazio arduradunak ere hartu zuen parte, komunikazioari lotutako alderdiak lantzeko.
- Lanerako prozesua egokitu eta birdefinitu dugu. Talde Eragileko lehenengo bilerak proposamenean definitutako prozesua egoerara eta udalaren beharretara egokitzeko balio izan ziguten. Prozesuan informatzaile kualitatiboak izan zitezkeena identifikatu genituen, horren arabera talde-elkarrizketak osatzeko. Komunikazio-plana ere diseinatu genuen.
- Dokumentazioa aztertu dugu. Berdintasunaren eremuan egin den lana aztertzeko informazio esanguratsua eman diezaguketzen dokumentuak identifikatu eta aztertu ditugu: memoriak, protokoloak, etab.
- Ordezkaritza politikoekin aurkezpen-saioa egin dugu. Lantzearen helburu nagusia prozesua aurkeztea, kontrastatzea eta ekarpenak jasotzea izan da.

#### 1. Ebaluazioa eta egungo erronka nagusiak identifikatzeko fasea:

Martxoan eta ekainan bitartean garatu dugu; apirilean hasi zen lanean Berdintasun teknikaria eta geroztik berarekin elkarlanean egin da lanketa. Fase honen helburu nagusia II. Planaren garapena ebaluatzeko ahalik eta informazio gehien eta ahalik eta iturri ezberdin gehienetatik biltzea izan da.

- Berdintasunaren ardura izan duen teknikariarekin elkarrizketa sakona egin dugu. Urnietako Berdintasunerako II. Planaren zehaztutako helburu eta neurrien betetze-maila aztertzeko, zer egin den, zer ez eta zergatik. Era berean, Plana garatzeko indargune nagusiak eta zailtasun nagusiak identifikatu ditugu; eta, genero-mainstreamingaren estrategia inplementatzeko eta berdintasunerako politikak sustatzeko erronkak identifikatzeko saiakera egin dugu.
- Udaleko sailtako arduradunari galdetegi bat pasa genien. Horren bidez genero-ikuspegia eguneroko lanean zer puntura arte integratzen duten ikusi nahi izan genuen.
- Udal-sailekin erronda egin dugu. Sail ezberdinak taldekatuz edota banaka, teknikariarekin elkarrizketak izan ditugu Planaren garapenari buruz, beraien eguneroko lanari buruz eta genero-ikuspegia lanean txertatzeari buruz.

Udal-sailekin erronda egiteaz gain, indarkeria matxistaren gaia Udaletik nola jorratzen den aztertzeko Udaltzaingoko arduradunarekin, Gizartekintzako arduradunarekin, berdintasun zinegotziarekin eta berdintasun teknikariarekin ere bildu ginen.

- Talde-elkarrizketak ere egin ditugu, elkarrizketa hauen baitan kolektibo ezberdinetako emakumeengana gerturatzeaz gain, bestelako kolektibo eta eragileetara gerturatu

gara, berriaz beraiei dagozkien gaiak lantzeko eta euren ikuspuntua ezagutzeko. Honela bada, guztira 4 elkarrizketa egin ditugu eta 18 pertsonen hartu dute parte, 17 emakumek (% 94,4) eta gizon 1ek (% 5,6).

Aipatutakoez gain, beste hiru pertsonen ere erantzun dizkigute galdera batzuk idatziz; emakume batek eta bi gizona. Hezkuntzako elkarrizketa bitan egin genuen, eragile batek ezin izan baitzuen saioan parte hartu eta, beraz, pertsona batekin beste hitzordu bat jarri genuen.

- Elkarrizketez gain, **herritarrekin lan-saio ireki** bat deitu dugu, non elkarteak ere berriaz gonbidatu ditugun, beraien ikuspegia ere jasotzeko. Saio honetan 8 pertsonen hartu dute parte, 5 emakumek eta 3 gizonen. Bat kenduta, gainontzekoak elkarteren baten izenean bertaratu dira.
- Bilera eta elkarrizketa guztiak egin eta gero, Talde Eragilea bildu da, formatu irekiagoan oraingoan, udaleko arlo-buru guztiek parte hartu dutelarik, modu honetan zeharkakotasuna bermatuz. Saio honetan jasotako askotariko informazioaren inguruan gogoeta egin eta etorkizuneko erronkak modu ordenatuan definitu ahal izan ditugu.

## 2. Berdintasunerako Plana diseinatzeko fasea:

Fase hau ekainean, II. Planaren ebaluazio-fasearekin batera, hasi zen, eta 2021eko azaroan amaitu. Bitarte horretan prozesua uste baino parte-hartzaileagoa izan da eta pertsona askoren inplikazioa eskatu du, batez ere Udal barruan; horrek guztiontzat lan gehigarria suposatu badu ere, gerora Plana garatzeko baldintza onak sorrarazten ere lagundu du.

- Talde eragile zabalak hiru bilera egin ditu Planaren zirriborroaren gainean lan egiteko.
- Behin zirriborroa esku artean izanda, hiru kontraste-saio egin genituen: bat udal-langile eta teknikariek, beste bat herritarrekin eta azkena udalean ordezkariak duten alderdi guztietako ordezkari-politikoekin.

## 3. Prozesua baloratu eta komunikatzeko fasea:

Talde eragilean, berriz ere formatu txikian, bildu eta prozesuaren nondik norakoak baloratu ditugu. Horrez gain, azken hilabeteetan modu paraleloan landu ditugun komunikazio-euskarrien zabalkundea nola egin ere adostu dugu.



#### 4. EBALUAZIO ETA DIAGNOSTIKO FASEAREN ONDORIO NAGUSIAK: ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Planaren nondik norakoen inguruan sakontzen hasi aurretik, ezinbestekoa izango da azken lau urteetan egindako lanaren azterketatik eta udalerrriaren analisi kualitatibotik ateratako ondorioak aztertzea, modu honetara beharrak zein diren jakin eta Planean planteatzen diren ekintzen zergatia ulertzeko. Jarraian jaso ditugu, labur azalduta, ondorio nagusiak lan-ildo bakoitzeko; zehaztasun gehiagorako ikus ebaluazio eta diagnostiko txostena.

##### **Gobernu ona**

Oro har arlo honetan lan handia egin dela esan daiteke; azken Planak indar handia jartzen zuen alderdi honetan, gainera. Oraina arte ez da berariazko teknizaririk egon Berdintasunaren ardurarekin, Gizartekintzako arlo-buruaren ardura zen, beste hainbat gauzen artean, berdintasunarena ere. Orain arte Planaren segimendua arlo-buruaren artean egin dute, zeharlerroko estrategia inplementatzea lehenetsiz, eta orain ere bide horretatik jarraitzea da erronka. Bide asko ireki dira, baina beste hainbat ekintzetan sakontzeko ez da aukerarik egon, beraz, teknikari berria iritsi izana aprobetxatuz, Plan honen erronka lanketa espezifikotetan sakontzen joatea izango da.

##### **Emakumeen ahalduntzea**

Urteak dira emakumeen ahalduntzerako ikastaroak bideratzen direla Urnietan, eta azken urteetan Jabetze Eskola formatua eman nahi izan zaio, gainera. Emakume askok dute ikastaro horien berri, baina ez guztiek, badirudi kolektibo batzuegana ez dela iristen udalak egiten duenaren berri.

Emakumeen ahalduntze soziopolitikoarekin lotuta, aipatzea oro har elkarrekin emakumeen parte hartzea handia dela, batez ere haurrekin lotutako ekimenekin lotura dutenetan. Gainera, elkarrekin asko dira Urnietan berdintasunarekiko konpromisoren bat hartu dutenak edo lanketaren bat egin dutenak, eta hau Udaletik ere sustatu da elkarrekin dituzten hitzarmenen bitartez.

Gai honekin lotuta, ikusi dugu Urnietan ez dagoela mugimendu feministarik, eta ez dela sekula talde feminista antolatutarik egon; baina badaude norbanako feministak, gauzak egiteko gogoz gainera.

##### **Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea**

Ildo honetan ikusi dugu gehiago direla langabezia egoeran dauden emakumeak gizonezkoak baino, eta zaugarritasun egoeran dauden emakumeek hainbat zailtasun aurkitzen dituztela bere egunerokoan. Honi erantzuteko gizarte zerbitzuek neurriak hartzen dituzte, oro har zein emakumeekin konkretuki.

Hezkidetzaren alorrean lan asko egiten da hezkuntza formalaren zein ez-formalaren aldetik: hezkidetzaren planak, tailerrak, profesionalentzat formazioa, egun puntualen inguruko lanketak, guraso eskola... Hala ere lanean jarraitzeko beharra ikusten dute oraindik ere profesionalak, eta bereziki, egiten den lana koordinatzeko beharra.

Zaintza lanen inguruko azterketa sakona egin da eskualde-mailan, nahiz eta pandemia tarteko Urnietako herritarren artean ez den oso ezaguna. Gaia lantzeko eta sakontzeko beharra ikusi dugu prozesuan zehar, eta baita gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko ere. Pertsona guztien egunerokoan gai garrantzitsua den heinean lehentasunezko gai bezala ikusi da.

### **Indarkeria matxista**

Prebentzioa landu izan da, batez ere haur eta gazteekin, nahiz eta azken urtean "Tratu onak eta hezkidetzak" programak murrizketak jasan dituen eta horrekin arduratuta daude ikastetxeak.

Herritarrek, oro har, indarkeria kasu baten aurrean dauden baliabideak ezagutzen ez dituztela ikusi dugu; beraz, prebentzioan eta baliabideen berri ematean indarra jartzen jarraitu behar dela identifikatu dugu.

Erakunde arteko koordinazio protokoloa landu da eta Udal barruan gizarte zerbitzuen eta udaltzaingoaren arteko koordinazioan sakondu da, baita datu-bilketa sistematizatzen hasi ere, baina gainontzeko erakundeekin elkartu eta Protokoloa formalki aktibatzea faltako litzateke.

Berroneratzearen bidean lan gutxi egin da, Asier Nieblaren kasuarekin lotutako ekimenen batekin landu da gaia nolabait.

Ardatzetan ikusitakoaz gainera, atera dugun ondorio orokor bat izan da herritarrek ez dutela Udalak berdintasunaren alorrean egindako lanaren berri; batzuek bai, partzialki, baina oro har ez da iritsi. Beraz, hurrengo urteetan landu beharreko puntua dela baloratu da.

Ondorio horiek aintzat harturik, eta, noski, prozesuan zehar ikusitako guztia, hauek dira Urnietan berdintasunaren alorrean identifikatu ditugun **erronka nagusiak**:

1. Genero zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea.
2. Jabetze Eskolaren irismena zabaltzea.
3. Urnietako emakumeen arteko sareak sortzea.
4. Hezkidetzaren alorrean egiten den lana indartzea eta koordinatzea.
5. Erantzunkidetasunean eta zaintzaren garrantzian sakontzea.
6. Indarkeria matxistaren prebentzioa indartzea.
7. Udalak berdintasunean egiten duen lana herritarrei helaraztea.

## 5. LEHENTASUNAK

Prozesuaren lanketan geundela, Plana sakontasunez lantzen hasi aurretik, ezinbestekoa iruditu zitzaigun hurrengo lau urteetan egingo den lana ardaztuko duten **lehentasun politikoak** zehaztea; izan ere, horiek aintzat hartu beharko ditugu lehentasunezko ekintzak zein diren aukeratzeko orduan. Hauek dira zehaztu ditugunak:

- **Bizitzen zaintza:** bizitzaren jasangarritasuna, zaintzaren etika eta eskubide kolektiboa eta erantzunkidetasuna.

Pertsonak eta bizitzak zaintzeko beharrak betetzeko egiten diren jarduerak jotzen ditugu zaintza-lantzat. Balio androzentriko eta patriarkalek lanaren banaketa sexualak errotzea ekarri dute, zeinaren arabera zaintza-lanak eta bizitza sostengatzen duten lan ikusezin guztiak emakumeen ardura diren. Bi eremutan egiten dira nagusiki: etxean eta familia-esparruan, musutruk, eta eremu profesionalean, gutxi ordainduta eta lan-baldintza prekarioetan. Gainera, emakumeen artean modu desorekatuan banatzen dira, klase sozialak, arrazializazioak eta migrazio-estatusak zeharkatuta kasu askotan. Guzti hori dela eta, zaintzen ardura gizarteak bere egiteko bideak hausnartu eta abiatu beharra agerian geratu da azken urteetan.

Zaintzei dagokien lekua eman behar diegu, zaintzen garrantzia aitortu eta herri bezala zaintza-lanen berrantolaketa modu justuago eta orekatuago batean egiteko ariketa abiatu. Hurrengo urteetako erronka, beraz, horri pixkanaka buelta ematen joatea da, zaintzaren garrantzia, honen beharra eta guztiok dugun ardura erdigunean jarrita. Pertsonak izaki sozialak garen heinean, eta gure artean harremanetan gaudenez, pertsonen arteko elkar zaintza ezinbestekoa izango da gure bizitzetan: jaiotzen garenetik hiltzera arteko ibilbidean, zainduak izatetik besteak zaintzerako bidea jorratzen joango gara.

- **Balio aldaketa, berdintasunerantz: sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta hezkidetzak.** Zaintzaren gaia bereziki, baina berdintasun balioekin lotuta lantzen den gai oro, Urnietar guztiengana iristea da lehentasunetako bat. Ideia da hurrengo urteetan herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lantzean indarra jartzea, beste hainbat lanketa egin ahal izateko oinarri sendoa izateko. Azken batean, gizarte berdinzaleago baterantz aldaketa eragin nahi badugu ezinbestekoa izango da urratsa gizarte bezala ematen joatea eta mezua ahalik eta jende gehienarengana iristea. Izan ere, herritar guztiak baldin badute gizarte ezberdinkerien berri, hauei erantzuteko eredu eta bideak ezagutzen badituzte eta hauen inguruko gutxieneko gogoeta egin badute, pixkanaka aldaketak egiten joatea errazagoa izango da.

## 6. PLANAREN GARAPENERAKO ETA LANERAKO OINARRIAK

Planaren garapenean zehar aintzat hartuko ditugun eta gure lanaren oinarri izango diren printzipioak dira jarraian jaso ditugunak. Hurrengo urteetan egingo dugun lanean beti gogoan izan beharko ditugunak eta, beraz, zeharlerrotasunez lantzen joango garenak.

- **Paradigma feminista(k).** Feminismoa da Urnietako III. Berdintasunerako Plana gidatzen duen oinarrizko printzipioetako bat, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio guztiak barne, genero desberdinkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politiko modura. Agenda horrek proposatutako aldaketak urte askoz mugimendu feministak egindako lanaren emaitza dira; eta teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari den une historiko-politiko honetan, helburua III. Plan honetan agenda feminista aintzat hartzea da, lan horri aitortza eginez.
- **Genero-ikuspegia.** Anlisi eta tresna metodologiko gisa genero-ikuspegia izango du Planak oinarrian, mendekotasun patriarkalean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko eta hauek sortu edo birsortzen laguntzen duten diskriminazio era guztiak identifikatzeko. Alegia, emakumeenganako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan beharko du kontuan gizonek eta emakumeek dituzten behar, interes eta errealitate ezberdinak eta horietatik abiatu esku-hartzeak planteatzerako orduan.
- **Ikuspegi interseksionala.** Genero-ikuspegiaren ikuskera konplexu eta integralago batetik III. Plan honek generoaz gain, bestelako diskriminazio faktoreekin duen aldebereko erlazioa ere aintzat hartzen du desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa; hau da, ikuspegi honi esker ezaugarri ezberdinak nola gurutzatzen zaizkigun ulertuko dugu. Izan ere, zeharkatzen gaituzten eta elkarreragiten duten diskriminazio- eta desberdinkeria-iturriak askotarikoak izan daitezke: arraza, klase soziala, dibertsitate funtzionala, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak. Hori dela eta, garrantzitsua da, aldagai horiek guztiak kontuan hartzea datuak jaso eta azterketak egiterakoan, besteak beste, generoaren kategoria dikotomikoa (emakume/gizon) gaingintzeko. Azken batean, pertsona bakoitzak dituen ezaugarriei gizarteak egozten dizkion konnotazio positibo edota negatiboen arabera, modu hierarkiko batean sailkatzen gaitu gizarteak, ezaugarri guzti horien elkarreraginaren ondorioz. Honela bada, interseksionalitateak berekin dakar ekintza konplexuagoa eta integratzaileagoa proposatzea, zeinak agerian jarriko dituen emakumeen aurkako desberdinkeriak areagotzen diren egoera horiek.

## 7. PLANA GARATU AHAL IZATEKO EZINBESTEKO BERMEAK

Plana aurrera atera ahal izateko ezinbesteko gutxieneko batzuk egongo dira, Udalak bete beharko dituenak, Plana behar bezala garatzeko baldintzak bermatze aldera. Hauek dira, Urnietako Udalak Berdintasunerako III. Plana behar bezala aurrera eraman ahal izateko ezinbestean bete beharko dituen bermeak:

- Berdintasun politikak aurrera eramateko **konpromiso politikoa**; berdintasunak Udalaren agenda-politikoan lekua izatea, alegia. Honekin batera etorriko litzateke zeharlerrotasun estrategia garatzeko baldintzak bermatzea eta bitartekoak jartzea.
- Beharrezko **baliabideak** jartzea berdintasun politikak aurrera eraman ahal izateko: aurrekontua, giza baliabideak eta baliabide teknikoak.
- Udalak eta hau osatzen duten sailek eta zerbitzuek **erantzunkidetasuna** izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzunkidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez...). Berme hau ezinbesteko baldintza da generozeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada. Edozein modutan, aipatu beharra dago Urnietako Udalaren kasuan bide bat eginda dagoela zentzu honetan, azken urteetan Berdintasunerako Planaren garapena sail guztien arteko elkarlanaren bitartez garatu baita. Edozein modutan, bide honetan mantentzeko eta aurrerapausoak emateko lanean jarraitzea beharrezkoa da.
- Politiketan **gardentasuna** izatea, herritarrek jakin dezaten Udalaren baliabideen bidez berdintasunari nola laguntzen zaion.
- Herriko eragileen, eta bereziki emakumeen, **parte-hartze soziopolitiko**a berdintasun **politiketan**, eta haien ahotsa entzutea, politiketan eragiteko gaitasuna emanez.

## 8. PLANAREN INDARRALDIA

Planaren indarraldia 2021an hasi eta 2025era artekoa izango da. Paperean 5 urteko luzatuko dela dirudien arren, praktikan lau urteko indarraldia izango du Plan honek ere, aurrekoen gisan; izan ere, 2021ean zehar egin da ebaluazioa eta Plan berriaren diseinu prozesu osoa, beraz, Plana onartu orduko hilabete gutxi geratuko dira garapenerako.

Edozein modutan, 2021a ere garapenerako urte bezala jasotzea erabaki dugu hainbat ekintza jada martxan daudelako prozesua errematatu ahala eta beste batzuk Plana onartu bezain laster egingo direlako.

## 9. ESKU-HARTZE ARDATZAK

Urnietako Berdintasunerako III. Planak, Emakunderen VII. Planaren eskemari jarraiki, lau lan-ildo nagusi ditu.

### 9.1. Gobernu ona

*Urnietako udaleko antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzen jarraitzea, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin konpromisoa indartuz eta berdintasuna gobernagarritasun printzipio dela berretsiz.*

Gaur egungo testuinguru politikoak (Berdintasun lege-proiektu berria legebiltzarrean dago) zein sozialak (feminismoaren bultzada) berdintasun politiketan aurrerapausoak emateko bidea irekitzen dute. Hori dela eta, Urnietako Udalak aurreko bi berdintasunerako planei esker irekitako bidean urrats sendoak ematen jarraitzeko unea da.

Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, esku-hartze publikoaren eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, horiei erantzun egokia emanaz eta ezberdintasunak murrizteko urratsak eginez.

Berdintasunaren aldeko gobernantza garatzeak ardura partekatua inplikatzeko du, hots, berdintasuna bultzatzea Berdintasun sailaren ardura ez ezik, inplikaturako eragile eta sail guztien ardura bilakatzea. Beti ere, Berdintasun Sailaren eskutik eta horretarako, baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoekin hornitzea bermatuz.

Euskadiko Autonomia Estatuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharrak dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin. Horrez gain, genero-ikuspegia administrazioaren jardunean integratzeko, Europako Kontseiluak "Genero zeharkakotasuna. Kontzeptu nagusiak, metodologia eta erabilera egokien aurkezpena" txostena aurkeztu zuen Estrasburgon 1998an.

Horietan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako 4/2005 legeak neurri multzo bat arautzen du genero-ikuspegia euskal aginte eta herri-administrazioen jardunean integratzeko: plangintza egitea; estatistikak eta azterketak hobetzea; langileen gaikuntza; eta berdintasun-printzipioa administrazioaren araudian eta jardunean txertatzeko prozedura ezartzea. Horiez gain, emakumeek erabakiak hartzerakoan parte hartzea, eta ekonomi baliabide nahikoak zein pertsona eta egitura egokiak eta koordinatuak ezartzea ere jasotzen ditu legeak administrazio publikoaren betekizun gisa; hasi Autonomia Erkidegoko Administrazioetik eta tokiko administrazioetaraino.

### 9.2. Emakumeen ahalduntzea

*Maila pertsonalean eta kolektiboan emakumeen autoestimua eta autonomia bultzatzea, maila sozial eta politikoetako erabaki-hartze eremutan aktiboki parte hartu dezaten.*

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta beraien bizitzako subjektu aktibo bihurtuz.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman dira gure gizartean. Urnietako udalak aurrera eraman dituen bi berdintasunerako planekin, lan-ildo honen oinarriak jarri dira, nahiz eta indarrak beste lanketa batzuetan erdiratu. Orain, emakumeen ahalduntzeari dagokionean, egindakoa egonkortu eta erronka berriei heltzea izango da helburua.

Zentzu honetan, III. Planaren garapenean zehar egongo den erronka nagusia izango da Jabekuntza Eskolaren eskaintza eta irismena dibertsifikatzea, ahalik eta emakume gehienei iristeko helburuarekin, herriko emakumeen arteko sareak eta elkar ezagutza indartzearekin batera.

Interseksionalitatea aintzat hartuz, Urnietako herriaren aniztasuna aintzat hartuta lan egitea da ideia hurrengo urteetan, profil ezberdinetako emakumeengana iristea ahalbidetuz. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

Boteretzarekin lotuta, aipatu ezinbesteko garrantzia izango duela emakumeen beraien ahotsak eta beharrak entzun ahal izateko parte-hartzeko bide eta espazioak eraikitzeak. Lehenengo urratsa emakume-mugimendua eta mugimendu-feminista artikulatu daitezen sustatzea litzateke, gerora interlokutore politiko gisa elkarlanean jarduteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira. Emakumeen ahalduntzearekin lotuta, hauek dira dagozkionak:

- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Toki-eremuan programak egitea.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten balia bideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

Horrez gain, legeak jasotzen du, baita ere, emakumeen parte-hartze soziopolitiko bultzatzeko eta areagotzeko betebeharra ere bada dela administrazio publikoak, bere esku dauden eremu guztietan.

Legeaz haratago joanik, Giza garapen jasangarriko Agenda 2030eko 5. Helburua ere bada generoen arteko berdintasuna sustatzea eta emakume eta nesken ahalduntzea lortzea.

### 9.3. Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

Gizarte-eredua aldatzeko urratsak ematen hastea, balio berdinezaleak herritarren artean zabalduz eta errotu daitezen sustatuz; beti ere udaletik eredu emanez.

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasuneko gizarte batera igartzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Sistema bidegabe eta desorekatu honi erantzungo dion eraldaketa, gizarte aurrerakoi eta jasangarriago baten aldeko apustua izan beharko litzateke.

Lan-merkatuan argi islatzen da sexuaren araberako egiturazko desberdinkeria, horrenbestez, kontuan hartu behar da enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina



ebaluatzeko unean. Arreta berezia jarritz, enplegua bilatzeari eta ekintzaitzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak aztertzeari, emakume kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz. Alegia, emakumeen behar berehalakoei eta dituzten epe ertain-luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko.

Horrez gain, zaintzaren garrantzian eta honen eskubide kolektiboan oinarritutako gizarte-antolaketa bultzatzea ere oinarritzakoa izango da. Izan ere, sexuaren araberako lan-bereizketaren ondorioz zaintza-lanak emakumeen gain geratu dira, modu prekario eta aitortu gabean, gainera, eta horrek inpaktu handia du beren bizitzetako gainontzeko alderdietan ere. Honela bada, ezinbestekoa izango da gizarte bezala zaintzarekiko erantzunkidetasuna lantzea.

Bide honetan, herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko izango da, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidea egiten hasteko.

Modu zuzenenean eragiten digun legeari erreparatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira. Emakumeen ahalduntzearekin lotuta, hauek dira dagozkionak:

- f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzako gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

Horrez gain, legearen xedeetako bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna legeetatik haratago errealitatera ekartzea da. Hori horrela, gizarte eraldaketa ezinbesteko urratsa izango da berdintasuna egikaritzeko orduan.

#### 9.4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

*Emakumeen kontra ematen den eta sexu/genero/sexualitate eskema tradizionalak hausten dituzten emakume nahiz gizonen kontrako indarkeria matxistarekin bukatzeko baliabide eta estrategiak indartu eta hobetzea, arlo hauetan: indarkeriaren prebentzioaren arloan, indarkeria jasan duten emakumeei arreta zerbitzuak emateari dagokionean eta emakume hauen oneratzeko prozesuak bideratzean. Esku-hartze hauek udalaren lehentasun politikoa izatea.*

Indarkeria matxista ez da indarkeria erabiltzen duten gizon batzuen arazo indibiduala, baizik eta arazo estruktural eta sistemikoa da, bizitzako arlo guztiei eragiten diena, eta berau sostengatzen duen matxismoa desagerraraztea eskatzen duena. Horretarako, konponbidea berdintasuna orokortzetik etorriko da, gure gizartearen balio eta helburu gisa.

Gaur egun, emakumeen aurkako indarkeriak jarrera teoriko eta azalpen ugari sortu ditu ezagutzaren alor guztietan, eta horiek legearen esparruko, esparru psikosozialeko, laguntzaren esparruko eta abarretako neurrien garapena ekarri dute berekin, eta neurri horiek ezarrita indarkeria hori prebenitu, kontuan hartu eta desagertzen lagundu nahi dugu.

Urnietako Udalaren lehentasuna izango da batetik, prebentziorako politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea, hala nola, erreparazioa eta oneratzzea bermatzea.

Prebentzioaren eremuan lanketa egin da azken urteetan Urnietan, batez ere haur eta gazteekin. Arretari dagokionez, indarkeria kasuen aurrean jarduteko koordinazio protokoloa diseinatu berri dago eta hori martxan jartzea eta Berdintasun teknikariaren egoerara egokitzea izango da ildo honetan lehentasunetako bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako 4/2005 legeak indarkeria matxista horrela definitzen du: "Lege honen ondoreetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa zein sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke". Testuinguru horretan, aipatzen du administrazio publikoaren betebeharra dela honen atzean dauden kausak, arrazoiak, ezaugarriak eta abar ezagutzeko ikerketa bideratzea; prebentzioa egitea; eta prestakuntza, alor horretan dabilzan profesional guztientzat. Horrez gain, atal propioa eskaintzen dio egoera honetan dauden emakumeei eskaini beharreko zerbitzuei. Honela bada, indarkeria matxista kasuen aurrean modu integral batean erantzutea administrazio publikoaren erantzukizuna izango da, eta horretan oinarrituta egingo da lan Urnietan ere.

## 10. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK

Lau lan-ildo horiek helburu estrategikotan banatu ditugu; eta helburu estrategiko horietako bakoitzak helburu operatibo batzuk ere badauzka, espezifikoagoak direnak. Hona hemen ardatz bakoitzari zehaztutako helburuak:

### Gobernu ona

<b>GO1. EMAKUMEEN* ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA</b>	GO1.1. Genero zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa esplizituki hartzea eta jakitera ematea.	1 ekintza
	GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoen esku jartzea	2 ekintza
<b>GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA</b>	GO2.1. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egitea, ebaluazioa eta koordinazioa bermatzea	9 ekintza
	GO2.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlaneko guneekin hartu-emana sustatzea	1 ekintza
<b>GO3. BERDINTASUNAREN ALDE EGITEN DEN LANA BEHAR BEZALA KOMUNIKATZEA</b>	GO3.1. Udalaren berdintasun-politikak eta sail bakoitzak berdintasunaren alde egiten den lana udaleko langile guztiengana iristea	3 ekintza
	GO3.2. Herritarrei begirako komunikazioa lantzea, egiten den lanak ikusgarritasuna izan dezan.	4 ekintza
<b>GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU ETA HORRETARAKO BEHARREZKO FORMAKUNTZA BERMATZEA</b>	GO4.1. Udal langile eta ordezkari-politikoentzako berdintasunean beharrezko trebakuntza eskaintzea	3 ekintza
	GO4.2. Udalaren jardueran genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea	19 ekintza
		<b>42 ekintza</b>

### Emakumeen ahalduntzea

<b>EA1. EMAKUMEEN* AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEA</b>	EA1.1. Jabekuntza Eskola dibertsifikatzea, ikuspegi intersektionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea	7 ekintza
	EA1.2. Herriko emakumeen* arteko sareak sortu daitezzen eta herrian parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea	10 ekintza
		<b>17 ekintza</b>

**Ekonomia eta gizarte-antolaketa eraldatzea**

<b>EGE1. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA</b>	EGE1.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte-eredu bateranzko oinarri gisa	9 ekintza
	EGE1.2. Urnieta herri hezkidetzaila izateko bidean urratsak ematea	4 ekintza
<b>EGE2. EMAKUMEEN* AUTONOMIA EKONOMIKOA</b>	EGE2.1. Emakumeen* lan-egoera hobetzeko baliabideak ahalbidetu	4 ekintza
<b>EGE3. ZAINZTA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA</b>	EGE3.1. Zaintza-lanak bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza direla aitortzea, erantzunkidetasunez	6 ekintza
	EGE3.2. Emakume* zaintzaileen bizitzak duintzea, horretarako beharrezko neurriak hartuz-eta errealitatea ikuspegi interseksional batetik aztertuz	3 ekintza
		<b>26 ekintza</b>

**Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak**

<b>IM1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA AREAGOTZEA</b>	IM1.1. Haur eta gazteen artean indarkeria matxistaren inguruko kontzientziazioa sustatzea	3 ekintza
	IM1.2. Herritarren artean dauden baliabideen inguruko ezagutza areagotzea eta kasu baten aurrean jarduteko tresnak eskaintzea	3 ekintza
	IM1.3. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea	2 ekintza
<b>IM.2. INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUMEEN* ARRETA ETA ONERATZEA BERMATU, AHALDUNTZERAKO IBILBIDEAK ESKAINIZ</b>	IM2.1. Indarkeria matxista kasuen koordinaziorako erakunde arteko protokoloa martxan jartzea	8 ekintza
	IM2.2. Urnietan indarkeria matxistarik gabeko jaiak izatea	3 ekintza
	IM2.3. Baliabideak eskaintzea eta baldintzak jartzea erreparazioa integrala izan dadin	4 ekintza
	IM.2.4 Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeen* ahalduntzerako bitartekoak eskaintzea	1 ekintza
		<b>24 ekintza</b>

## 11.EKINTZA-PLANA

Helburuak lortzeko proposatutako neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate; hau da, neurri batzuek urtez urtekako garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik. Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira. Jarraian, Urnietako Berdintasunerako III. Plana garatzeko proposatutako ekintza konkrituak jaso ditugu; gainera, horiek **zer urtetan burutzea aurreikusten dugun** eta **arduradunak** nortzuk izango diren jaso dugu.

Ekintza-plana Exceleko tresna batean jaso dugu, lanerako tresna erabilgarria izan dadin eta ez zerbait estankoa. Modu honetara, urtez urteko segimendua egitea erraztuko digu tresnak, baita urteko kudeaketa-plana modu sinple batean eskuratzea ere.

1. GOBERNU ONA							
GO1. EMAKUMEEN* ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
GO1.1. Genero zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa esplizituki hartzea eta jakitera ematea.	GO.1.1.1. Berdintasunerako III. Plana Udalbatzan onartu eta herritarrei komunikatu.	x					Udalbatza
GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoen esku jartzea	GO.1.2.1. Berdintasun politikak aurrera eramateko urteko kudeaketa planean aurreikusitako ekintzak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatu eta honen kudeaketaren kontrola egin.	x	x	x	x	x	Udalbatza
	GO.1.2.2. Berdintasun politikak aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak bermatu.	x	x	x	x	x	Udalbatza

1. GOBERNU ONA							
GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
GO2.1. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egitea, ebaluazioa eta koordinazioa bermatzea	GO.2.1.1. Urtero Berdintasunerako Planari lotutako kudeaketa-plana prestatu eta sail bakoitzarekin landu bera inplikatzaren duten ekintzak saileko kudeaketa-planean txertatu ditzaten.	x	x	x	x	x	Berdintasuna GKTko koordinatzailea
	GO.2.1.2. Urteroko kudeaketa-planei eta Planaren betetze-mailari etengabeko segimendua egin, beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak aplikatuz.	x	x	x	x	x	Berdintasuna
	GO.2.1.3. Urte amaieran Planaren garapenaren inguruko memoria bat egin, urte osoan egindako lana jasotzen duena eta herritargoko batzorde informatiboan azaldu.		x	x	x	x	Berdintasuna
	GO.2.1.4. Udaleko kudeaketa plan orokorra eta berdintasuneko kudeaketa plana koherenteak izan daitezen jarraipen eta ebaluaziorako tresna egokia sortu.	x					Berdintasuna GKTko koordinatzailea
	GO.2.1.5. Urtean, gutxienez, berriazko Berdintasuneko GKTko hiru bilera egin Planari segimendua egiteko.		x	x	x	x	Berdintasuna
	GO.2.1.6. Arloburu bakoitzak urtero bere arloko lankideei Berdintasunerako Planaren markoan aurrera eraman beharreko ekintzen berri ematea, berdintasun politiken zeharlerroko izaera azpimarratuz, guztiek Berdintasunerako Planaren berri izan dezaten.	x	x	x	x	x	Arloburuak
	GO.2.1.7. Lau hilabetero urte horretarako planifikatuta dauden ekintzak aurrera eramateko berriazko lantaldeak sortuta dauden eta nola funtzionatzen duten aztertu; beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak hartu.		x	x	x	x	Berdintasuna
	GO.2.1.8. Herritargoko batzorde informatiboetan, gutxienez urtean bitan berdintasuneko gaiak landu eta Planari segimendua egiteko bilera monografiko bat egin.	x	x	x	x	x	Berdintasuna

GO2.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlaneko guneekin hartu-emana sustatzea	GO.2.1.9. Urtero Berdintasun Planari lotutako aurrekontua modu xehetuan aurkeztu.	x	x	x	x	x	Berdintasuna Kontuhartzailletza
	GO.2.2.1. Berdintasun teknikariak udalaz gaindiko foroetan parte hartzea: Beterri Buruntzaldeako foro feminista, Gipuzkoako berdintasun teknikarien sarea, Berdinsarea, Gipuzkoako Jabetze eskolen sarea... Aukerak aztertu eta aproposa ikusten den horietan parte hartu.	x	x	x	x	x	Berdintasuna

1. GOBERNU ONA							
GO3. BERDINTASUNAREN ALDE EGITEN DEN LANA BEHAR BEZALA KOMUNIKATZEA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
GO3.1. Udalaren berdintasun-politikak eta sail bakoitzak berdintasunaren alde egiten den lana udaleko langile guztiengana iristea	GO.3.1.1. Urtero Planaren betetze-mailaren eta aurreikusitako ekintzen berri eman langile guztiei arloko bileretan.		x	x	x	x	Arloburuak
	GO.3.1.2. Langile guztiei Berdintasunerako Planaren aurkezpena egin.	x					Berdintasuna
	GO.3.1.3. Arlo bakoitzean egiten den lanaren berri ematea elkarri, elkar elikatzeko eta kanpora begira zer komunikatu nahi den ondo hautatzeko.	x	x	x	x	x	GKT-ko kideak
GO3.2. Herritarrei begirako komunikazioa lantzea, egiten den lanak ikusgarritasuna izan dezan.	GO.3.2.1. Planaren berri emateko euskarriak zabaldu bide ezberdinetatik: Udalaren web orria, aplikazioa, sare sozialak; prozesuan parte hartu duten pertsonei bidali; euskarria inprimatu eta etxez etxe bidali.	x					Komunikazioa
	GO.3.2.2. Udaleko web orrian Berdintasunaren atala sortu eta eguneratuta mantendu, egiten diren gauzen berri emanez.	x	x	x	x	x	Informatika Komunikazioa Berdintasuna
	GO.3.2.3. Berdintasunaren alorrean egiten den lana komunikatzeko irizpideak eta bideak adostu		x				Komunikazioa Berdintasuna

GO.3.2.4. Herriko eragile ezberdinekin sareak sortu egiten ditugun hainbat ekimen edo lanketarako zabalkundea edota deribazioak egiteko aliatu izan daitezkeenak: guraso elkarteak, ikastetxeak, osakidetza...	x	x	x	x	Berdintasuna
--	---	---	---	---	--------------

**1. GOBERNU ONA**

**GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU ETA HORRETARAKO BEHARREZKO FORMAKUNTZA BERMATZEA**

HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
GO4.1. Udal langile eta ordezkari-politikoentzako berdintasunean beharrezko trebakuntza eskaintzea	GO4.1.1. Planaren garapenerako beharrezko trebakuntzak identifikatu eta formakuntza ibilbide bat diseinatu langileentzat, urtez urte errebisatu ahal izango dena.		x				Berdintasuna GKT-ko kideak
	GO4.1.2. Identifikatu diren behar horiek urtez urte trebakuntza-planean txertatu.		x	x	x	x	Antolakuntza
	GO4.1.3. Udal-ordezkarietzat oinarrizko trebakuntza bermatu (legegintzaldi berri bakoitzean gutxienez behin berritu); eskuragarri dauden trebakuntzen berri eman, bere kabuz egin ditzaten.	x	x	x	x	x	Berdintasuna
GO4.2. Udalaren jardueran genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea	GO.4.2.1. Aztertu ea datu-bilketa egiteko euskarri guztietan (inprimakiak, erregistroak...) genero-adargaia txertatuta dagoen, eta hala ez bada neurri zuzentzaileak aplikatu.		x				Berdintasuna Antolakuntza
	GO.4.2.2. Sailez sail gai edo lanketa konkretuak aukeratu eta pixkanaka datuak generoaren arabera bereizita lantzen hasi, urtez urte gai ezberdin bat aukeratu lanketa egiteko.			x	x	x	Berdintasuna Antolakuntza
	GO.4.2.3. Urnietako Udaleko komunikazio ez-sexista eta inklusiborako gidaren errebisioa egin.	x					Berdintasuna



GO.4.2.4. Komunikazio ez-sexista eta inklusiborako gida lantzeko eta honi zabalkundea emateko trebakuntza aplikatua egin, ezagutza areagotzeko eta zalantzak konpartitzeko.	x					Berdintasuna
GO.4.2.5. Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa egiten ari dela bermatzeko segimendua egiteko sistema definitu, urtero euskarri batzuk hautatu eta errebisioa egiten joan, neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izateko.		x	x	x	x	Berdintasuna Komunikazioa
GO.4.2.6. Berariazko lantalde baten bidez oinarrietako klausula bereziak aztertu, kontratu-mota ezberdinetarako irizpideak ezarri eta jarraipenerako moduak zehaztu		x				Antolakuntza
GO.4.2.7. Barne kontrolerako dokumentuaren bidez klausula berezien betetze-mailari segimendua egin		x	x	x	x	Antolakuntza
GO.4.2.8. Berdintasunerako Planaren helburuak kontuan izanik, zaintzarekin lotura gehien duten kontratuen zerrenda bat egin eta kontratuen lehiaketa horiek noiz egitea aurreikusten den aztertu		x				Antolakuntza
GO.4.2.9. Zaintzarekin harremana duten kontratuetan genero-ikuspegia txertatzeko berariazko lanketa egin.		x	x	x	x	Berdintasuna
GO.4.2.10. Dirulaguntzekin, elkarrekin hasitako bideari jarraiki, hartumana mantendu eta berdintasunean (zein zeharkako beste gaietan) bidea egiten jarraitu dezaten sustatu.		x	x	x	x	Sustapena
GO.4.2.11. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko trebakuntza jaso eta gogoeta egin, horretarako berariaz sortutako lantalde batean.			x			Berdintasuna
GO.4.2.12. Udaleko aurrekontua aztertu eta genero-ikuspegia nola txertatuko den adostu.				x		Antolakuntza
GO.4.2.13. Udal-aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko adostutako bidea aplikatu eta ebaluatu, beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak aplikatuz.					x	Antolakuntza

	GO.4.2.14. Ordenantza-fiskalak genero-ikuspegitik aztertu eta hobekuntzak txertatzeko lanketa egin.			x	x	x	Antolakuntza
	GO.4.2.15. Hirigintzaren alorrean hurrengo urteetan etorriko diren urbanizazio berrien proiektuetan hasieratik genero-ikuspegia txertatzeko formakuntza jaso hiri-eredu berdinaleagoa eraikitzeke bidean urratsak egin ahal izateko.	x	x	x	x	Hirigintza	
	GO.4.2.16. Urteko kudeaketa-plana lantzean sail bakoitzean aurreikusitako lanketak eta egitasmoak zein diren aztertu eta hasieratik genero-ikuspegia txertatzeko batzuk hautatu.	x	x	x	x	GKT-ko kideak	
	GO.4.2.17. Enplegu publikorako deialdietan berdintasuna aintzat hartzeko lanketa egitea: edukietan zein irizpideetan.	x				Antolakuntza	
	GO.4.2.18. Parte-hartze prozesuetan norke parte hartzen duen aztertu eta, beharrezkoa balitz, genero-ikuspegia aintzat hartzeko lanketa egitea, emakumeen* parte hartzea sustatuz eta aintzat hartuz.			x		Antolakuntza	
	GO.4.2.19. Elkartegintzarekin elkarlanean sortu daitezkeen egoerak interpretatzeko eta gainditzeko formazioa eta aholkularitza jaso: hitzarmetetan konpromisoak nola aberastu, konpromiso berriak hartzeko azterketa nola egin...	x				Sustapena	

2. EMAKUMEEN* AHALDUNTZEA							
EA1. EMAKUMEEN* AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
EA1.1. Jabekuntza Eskola dibertsifikatzea, ikuspegi interseksionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea	EA.1.1.1. Jabekuntza Eskolako eskaintzaren aniztasuna sustatu, eduki zein ordutegi edota iraupen aldetik.	x	x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.1.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu: talde egonkorak sortu, berariazko zapalkuntzak lantzeko saioak antolatu, gizartekintzarekin elkarlanean profil hauetako emakumeak* ikastaroetara gerturatu daitezten sustatu...		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.1.3. Neska* eta emakume* nerabe eta gazteak ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.1.4. Parte hartzen duten emakumeen* profilen segimendua egin eta bilakaerarik ematen den aztertu; hala ez balitz neurri zuzentzaileak proposatu.		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.1.5. Urtero, Jabekuntza Eskolan parte hartzen duten emakumeekin* balorazio-saio bat egin, ikasturtearen balorazioa egin eta hurrengo ikasturterako proposamenak jasotzeko; bide batez, beraien arteko sareak sortzeko baliatuz.	x	x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.1.6. Jabekuntza Eskolaren komunikazioa berariaz landu, gaur egun iristen ez den foroetara iritsi dadin: jada existitzen diren komunikazio bideak baliatu, berariazko komunikazio-bideak sortu, zabalkunderako aliantzak bilatu...	x	x				Berdintasuna
	EA.1.1.7. Beste Jabekuntza Eskolen berri izateko saio edota jardunaldiak antolatu: aukera ezberdinak ezagutu, horietan parte hartzen duten emakumeak* ezagutu, saretzeko aukerak...			x	x		Berdintasuna

EA1.2. Herriko emakumeen* arteko sareak sortu daitezzen eta herrian parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea	EA.1.2.1. Jabekuntza Eskolako ikastaroen bidez talde egonkorak sortu daitezzen sustatu.		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.2.2. Emakume*-talde edota talde-feminista autonomo bat sortzeko estrategiak eta aukerak aztertu: eskolekin aliantzak egin, Jabekuntza Eskolako partaideak edota talde egonkorak, elkarteak...		x	x	x	x	Berdintasuna Sustapena
	EA.1.2.3. Emakume*-talde edota talde-feminista autonomorik sortuko balitz, Udaletik bere jarduna aurrera eramateko erraztasunak ematea: elkarte bezala erregistratu, ekimenak antolatzeko beharrezko baimenak eskatzeko laguntza eskaini, baliabideak lortzeko tramiteetan lagundu	x	x	x	x	x	Sustapena
	EA.1.2.4. Herriko emakume* anitzen (jatorria, klasea, adina...) arteko sareak eta elkarlana sustatzeko bideak landu, adibidez, data punualetan egitarau parte-hartzaileak antolatuz.		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.2.5. Urnietako emakumeek* elkartzeko eta saretzeko espazio propio baten beharra duten aztertu eta beraiekin batera baloratzea; eta hala balitz, Emakumeen* Etxea sortzeko prozesua martxan jartzea.					x	Berdintasuna
	EA.1.2.6. Herri-mailan emakumeen* jarduna ikusarazteko eta aitortzeko bidea aztertzen hasi (kirolean, kulturean...); haur eta neska gazteentzat duten erreferentzialtasuna baliatu eredu ezberdinak izan ditzaten.				x	x	Berdintasuna
	EA.1.2.7. Emakumeen* parte hartzea sustatu, hau egiten duten elkarteei aitortza eginez eta egiten duten lanari ikusgarritasuna emanez.				x		Sustapena
	EA.1.2.8. Udalaren esku dauden ekimenetan zaintza-ardurak dituzten pertsonen (batez ere emakumeak* izan ohi direnak) parte hartzea ahalbidetzeko berariazko neurriak hartu.		x	x	x	x	GKT-ko kideak
	EA.1.2.9. Emakumeek* berdintasun-politiketan parte hartzen hasteko bideak irekitzen hasi: web orrian ekarpenak jasotzeko berariazko espazio bat sortu, berdintasun teknikariaren eskuragarritasuna helarazi, Jabekuntza Eskoletako urteroko balorazioak baliatu berariazko lanketa puntualen bat edo kontsultaren bat egiteko...		x	x	x	x	Berdintasuna
	EA.1.2.10. Inguruko herrietan dauden berdintasun kontseiluak ezagutzeko jardunaldi bat antolatu, hauen rola zein den, nola funtzionatzen duten eta abar ezagutzeko, eta Urnietan horrelako espazio bat behar edo/eta nahi dugun gogoeta egin.					x	Berdintasuna

3. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA								
EGE1. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA								
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)	
		2021	2022	2023	2024	2025		
EGE1.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte-eredu bateranzko oinarri gisa	EGE.1.1.1. Genero aginduen ondorioz, emakumeei* historikoki egotzi zaizkien lanen balorazioa eta ikusgarritasuna sustatzeko ekimenak bideratzea: zaintza-lanak balioan jartzea, memoria historikoa lantzeko ikerlanak...			x	x	x	Berdintasuna	
	EGE.1.1.2. Genero aniztasunari ikusgarritasuna eman herri-mailan, data konkretuetan egiten diren lanketez haratago, errealitate hauek ikusarazteko eta gai honen inguruko gogoeta sustatzeko ekimenak aurrera eraman: zineforumak, antzerkiak, kanpainak...		x	x	x	x	Sustapena	
	EGE.1.1.3. Berdintasunaz sentsibilizatzeko data zehatzetan egin diren kanpaina eta sentsibilizaziorako ekimenak bultzatu, herriko emakume*, eragile eta mugimendu feministarekin (balego) elkarlanean.		x	x	x	x	Berdintasuna	
	EGE.1.1.4. Haur eta gazteek bestelako ereduak ere ezagutu ditzaten lanketa egin erreferente izan daitezkeen pertsonen bidez (herrikoak edo ingurukoak badira hobeto): emakume* kirolari edota zientzialariak, gizontasun eredu tradizionaletik kanpo dauden gizonak...				x		x	Sustapena Berdintasuna
	EGE.1.1.5. Kirol esparruan udalaren gain dauden ekimen, hitzarmen eta sariketetan genero-ikuspegia txertatu.				x	x	Sustapena	
	EGE.1.1.6. Herriko elkarten beharretara egokituko den trebakuntza eskaini edo trebakuntza jaso dezaten baliabideak jarri, hitzarmenak baliatu daitezke lanketa hori egiteko				x		Sustapena	
	EGE.1.1.7. Kultur-eskaintza egonkorraren bidez zeharka feminismoarekin eta berdintasunarekin lotutako edukiak landu eta emakume* sortzaile eta protagonistei ikusgarritasuna eman.		x	x	x	x	x	Sustapena

	EGE.1.1.8. Egun puntualetan (martxoaren 8a, ekainaren 28a...) berariazko lanketak egin egunei eta duten esanahiari ikusgarritasuna eta garrantzia emanez, gizarte inklusiboago baterantz		x	x	x	x	Sustapena Berdintasuna
	EGE.1.1.9. Gizonezkoen erantzukidetasuna eta maskulinitate eredu berriak landu: gaia lantzeko kultur-eskaintza, berariazko tailer edota ikastaroak adin-tarte ezberdinetako gizon eta mutilekin, gizonek zaintza-lanetan duten erantzukidetasunaren inguruan hausnartzeko tailerrak/gogoeta espazioak...		x	x	x	x	Sustapena Berdintasuna
EGE1.2. Urnieta herri hezkidetzalea izateko bidean urratsak ematea	EGE.1.2.1. Hezkuntzarako koordinazioetan (mahaia, bilerak e.a) hezkidetzaren lanketa egiten dela bermatu, hezkuntza formal eta ez-formaleko eragileekin.			x	x	x	Sustapena
	EGE.1.2.2. Haur eta gazteekin lan egiten duten profesionaleri (gazte zerbitzuko langileak, hezitzaileak, aisialdiko begiraleak, multikiroletako entrenatzaileak...) genero-berdintasunean eta hezkidetzan trebakuntza eskaini, zeharkako balio bezala lantzen jarraitu dezaten, eta urtero, kurtso hasieran, berritu.		x	x	x	x	Sustapena Gizartekintza
	EGE.1.2.3. Udaleko Hezkuntza sailetik bideratzen diren laguntzetan (dirulaguntzak eta bestelakoak), hezkidetzaren irizpidea barneratua dagoela bermatu.		x	x	x	x	Sustapena
	EGE.1.2.4. Urnieta ikastetxeetan hezkidetzaren lantzeko aholkularitza eskaerei erantzuna eman, beharrezkoak diren informazioak eta existitzen diren baliabideetatik informatuz	x	x	x	x	x	Sustapena

3. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA							
EGE2. EMAKUMEEN* AUTONOMIA EKONOMIKOA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
EGE2.1. Emakumeen* lan-egoera hobetzeko baliabideak ahalbidetu	EGE.2.1.1. Urnietan langabezian dauden emakumeek* dituzten trebakuntza-beharrei adi egon, mankomunitatetik antolatzen diren foroetan parte hartzen jarraitu eta bertan jasotako informazioa udalera ekarri		x	x	x	x	Sustapena
	EGE.2.1.2. Euskara ikasteko erraztasunak eman, batez ere zaugarritasun egoeran dauden pertsoneri.		x				Sustapena
	EGE.2.1.3. Gizarte zerbitzuetatik Beterri Buruntzaldeako enpleguratzeko programan parte hartzen jarraitu eta bertan parte hartzen duten emakumeen* ibilbideari segimendua egin, beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak aplikatzeko.	x	x	x	x	x	Gizartekintza
	EGE.2.1.4. Udalak eskaintzen dituen lanpostuetan eta azpikontrataturako zerbitzuetan lan-baldintza duinak eskaintzea bermatu eta bereziki zaindu feminizatutako lan-arloetan (etxez etxeko zaintza zerbitzua, garbiketa...).			x	x	x	Antolakuntza

3. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA							
EGE3. ZAINZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
EGE3.1. Zaintza-lanak bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza direla aitortzea, erantzunkidetasunez	EGE.3.1.1. Beterri buruntzaldeako zaintza lanen diagnostikoa herri-mailan ezagutarazteko ekimenak bideratu.	x	x				Berdintasuna
	EGE.3.1.2. Zaintza-lanen garrantziaren inguruan gogoeta egiteko ekimenak antolatu: tailerrak, antzerkiak, zineforumak...	x	x	x	x	x	Berdintasuna
	EGE.3.1.3. Zaintzaren ardura kolektiborako eta saretzerako herri-mailan sortu daitezkeen egiturak zein izan daitezkeen hausnartu.					x	GKT-ko kideak
	EGE.3.1.4. Zaintza beharrak dituzten pertsonentzat (autonomia-maila gutxitua duten pertsonak, haurrak...) udaletik egiten den eskaintza eta herritarrek egiten duten erabilera aztertu (etxez etxeko zerbitzua e.a.) eta beharrezkoa balitz hobekuntzak integratu zerbitzuak biztanleriaren beharrei erantzun diezaien.			x			Gizartekintza
	EGE.3.1.5. Zaintza kolektibizatzearen harira inguruan egiten ari diren ekimenak aztertu eta Urnietara ekartzeko modukoak diren baloratu: etxebizitza kolaboratiboak eta abar.				x	x	Berdintasuna
	EGE.3.1.6. Zaintzaren inguruan existitzen diren zerbitzuen inguruko informazio euskarriak sortu.			x			Gizartekintza
EGE3.2. Emakume* zaintzaileen bizitzak duintzea, horretarako beharrezko neurriak hartuz eta errealitatea ikuspegi intersektional batetik aztertuz	EGE.3.2.1. Zaindarien taldea antolatzen jarraitu eta zabalkunde gehiago eman, egoera honetan egon daitezkeen zaintzaileek (berezik emakumeek*) baliabide honen berri izan dezaten.	x	x	x	x	x	Gizartekintza
	EGE.3.2.2. Udalaren esku dauden etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurriak ezarri		x	x			Idazkaritza Gizartekintza
	EGE.3.2.3. Zaintza erdigunean jarriko duen hirigintza eredua sustatu, espazio publiko inkusiboak sortuz egiten diren obra edota hobekuntza guztietan.			x	x	x	Hirigintza



4. INDARKERIA MATXISTA GABEKO BIZITZAK							
IM1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA AREAGOTZEA							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2020	2021	2022	2023	2024	
IM1.1. Haur eta gazteen artean indarkeria matxistaren inguruko kontzientziazioa sustatzea	IM1.1.1. Eskoletan aurrera eramaten diren prebentzio programen inguruan hausnarketa egin, hezkuntza-komunitate osoa aintzat hartuta, eta hurrengo urteetarako estrategia markatu eskolekin batera lanketa modu integralean egiteko: lanketen hartzaileak definitu, landu beharreko gai gakoak...		x	x			Berdintasuna
	IM1.1.2. Gazte programetatik indarkeria matxistaren prebentzioa lantzen jarraitzea, data puntualen bueltan zein egunerokoan zeharka.	x	x	x	x	x	Sustapena
	IM1.1.3. Gazteentzako aisialdiarekin lotutako ekimenak antolatu, berriaz indarkeria matxistaren prebentzioa eta nesken ahalduntzea lantzen dutenak: rap eraldatzailea, ligoteo tailerra, autodefentsa feminista neska gazteentzat...	x	x	x	x	x	Sustapena
IM1.2. Herritarren artean dauden baliabideen inguruko ezagutza areagotzea eta kasu baten aurrean jarduteko tresnak eskaintzea	IM1.2.1. Jaien eta aisialdiaren testuinguruan indarkeria matxista eta sexu-erasoen inguruan berriazko prebentzio-kanpainak bideratzea.		x	x	x	x	Sustapena
	IM1.2.2. Herrian indarkeria matxista kasuetarako dauden baliabideen berri eman herritarrei: adibidez, gida baten bidez, eragile ezberdinekin elkarlanean...		x	x			Sustapena Gizartekintza
	IM1.2.3. Kolektibo ezberdinekin indarkeria matxista kasuen aurrean nola jardun landu (dendariak, tabernariak, hezkuntzako eragileak, herritarrak oro har...) tailer praktiko bidez. Landutakoa laburtzeko euskarri batzuk prestatu gainontzeko herritarrei ere zabaltzeko.				x	x	Sustapena
IM1.3. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea	IM1.3.1. Urnietako Udalak indarkeria matxistarekin lotuta dituen hiru protokoloak aztertu eta beraien artean koherente egin.		x				Berdintasuna
	IM1.3.2. Azaroaren 25a eta maiatzaren 17a bezalako datetan sentsibilizazio kanpainak antolatzea ekimen ezberdinen bidez herritarren sentsibilizazioa areagotzeko		x	x	x	x	Berdintasuna Sustapena

5. INDARKERIA MATXISTA GABEKO BIZITZAK							
IM.2. INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUMEEN* ARRETA ETA ONERATZEA BERMATU, AHALDUNTZERAKO IBILBIDEAK ESKAINIZ							
HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)
		2021	2022	2023	2024	2025	
IM2.1. Indarkeria matxista kasuen koordinaziorako erakunde arteko protokoloa martxan jartzea	IM.2.1.1. Erakunde arteko Koordinazio mahaia deitu eta eragile ezberdinen arteko elkarlana abiatu.		x				Berdintasuna
	IM.2.1.2. Datu-bilketarekin jarraitu eta hau findu, Emakundek eskatzen dituen datuekin bat egin dezan eta urteko txostena egin.	x	x	x	x	x	Gizartekintza
	IM.2.1.3. Udaltzaingoa eta gizarte zerbitzuen arteko koordinaziorako espazioa mantendu eta honetan sakontzen jarraitu.	x	x	x	x	x	Udaltzaingoa Gizartekintza
	IM.2.1.4. Kasuen aurrean jarduteko urrats zehatzak adostu eta prozedurak sistematizatu (ahal den heinean, beti ere kasuan kasu malgutasunez jokatzuz).		x				Gizartekintza
	IM.2.1.5. Udal langileek indarkeria matxistaren alorrean izan ditzaketen trebakuntza-beharrak aztertu eta hauei erantzuteko plangintza adostu; bereziki emakumeekin* hartu-eman zuzena duten profesionalekin, baina besteei ere zabaldu, besteak beste haur eta gazteekin lan egiten dutenei (formazio sexologiko eta hezkidetzaila)		x	x	x	x	Berdintasuna
	IM.2.1.6. Gazteriako zerbitzuetan egonkortasunez aholkularitza sexologiko zerbitzua eman.			x	x	x	Sustapena
	IM.2.1.7. Gazteriako zerbitzuetan gazteekin lanketa zehatzak burutu, tratu onen ikuspegitik.		x	x	x	x	Sustapena
	IM.2.1.8. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeengana iristeko bideak landu: Osakidetzarekin, Gizartekintzarekin, Hernaniko Amher elkartarekin... elkarlana bilatu kasuen deribazioa eta koordinazioa bermatzeko eta emakume* guztiei behar bezalako arreta eman ahal izateko.				x	x	x

IM2.2. Urnietan indarkeria matxistarik gabeko jaiak izatea	IM.2.2.1. Jai batzordearekin batera jaietako protokoloa kontrastatu, adostu eta martxan jartzeko lanketa egin, udaleko sail ezberdinen inplikazioarekin.		x	x			Sustapena
	IM.2.2.2. Jaietako indarkeria matxista protokoloan parte hartuko duten eragile eta udal-sailentzako trebakuntza antolatzea.			x			Berdintasuna
	IM.2.2.3. Udalak jaien testuinguruan beste zerbitzu batzuk martxan jarri behar dituen aztertu, udaleko sail ezberdinen eta jai batzordearen inplikazioarekin: jaietako babes eta informazio puntua, larrialdi telefonoa...			x			
IM2.3. Baliabideak eskaintzea eta baldintzak jartzea erreparazioa integrala izan dadin	IM.2.3.1. Erreparazio sozialerako ekimenak antolatu, herriko emakumeekin* elkarlanean.			x		x	Berdintasuna Sustapena
	IM.2.3.2. Indarkeria matxista bizi izan dutenen aitortzarako zein indarkeria matxista gaitzesteko elementuak txertatu: eskulturak, kale-izendegia egokitu...			x	x		Berdintasuna Hirigintza
	IM.2.3.4. Indarkeria matxista kasuetarako erantzun publikorako protokoloa Urnietako errealitatera egokitu eta beharrezkoa denean martxan jarri; aktibatzean identifikatutako hutsuneak hobetzen joan.	x	x				
IM.2.4 Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeen* ahalduntzerako bitartekoak eskaintzea	IM.2.4.1. Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeentzat* taldeko jarduerak antolatzea, berariaz indarkeria matxista bizi eta gero oneratzeko.		x	x	x	x	Berdintasuna Gizartekintza

## 12. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

Jarraian Planaren garapena ahalbidetuko duen kudeaketa-sistemaren alderdi ezberdinak aztertzen joango gara.

### 12.1. Garapen eta kudeaketarako egiturak

Urnietako Berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko ditu Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorreari jarraituz: “Euskal herri-aginteez, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorrakoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen”.

Gainera, Urnietako Berdintasunerako III. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute Berdintasunerako Plana: bai neurrien kudeaketa ekonomikoetan eta gauzapenean islatu den konpromiso formal gisa, baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso gisa ere. Konpromiso horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan... parte-hartzeko prozesuan izango du isla.

Zeharkakotasuna eta arlo guztien inplikazioa ezinbestekoak izango dira Plana aurrera eramanez ahal izateko. Izan ere, Berdintasun teknikariaren lana eta inplikazioa ez ezik, beste alorretako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu eta lana modu transbertsalean egitea askoz eraginkorrakoa izango da benetako inpaktua lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Lau dira garapenerako proposatzen ditugun **egitura nagusiak**:

1. Berdintasun Saila
2. Berdintasunerako GKT (Gestio eta Kudeaketa Taldea)
3. Herritargoko batzorde informatiboa
4. Berriazko lantaldeak

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

Planaren garapenaren ardura nagusia **Berdintasun Sailak** izango du. Hau izango da planaren jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutzearen ardura izango duena, nahiz eta beste sailek ere parte hartu, eta abar.

Berdintasun Teknikaria berria da Udalean, beraz, lan egiteko modu hau berria izango da Urnietako Udalean. Teknikariak berdintasuneko berriazko masterra eta esperientzia du, eta lanaldi erdiz dabil berdintasun gaietan, horrek dedikazioan dituen mugekin.

## 1. BERDINTASUN SAILA

Berdintasunerako III. Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

### Parte-hartzaileak

- Berdintasunerako arduradun politikoa.
- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.

### Funtzionamendua

- Gune hau etengabeko koordinazioan egongo da eta behar beste bilera egingo ditu.

Planaren garapenerako ezinbesteko egitura izango da **GKT**. Orain arte ere hau izan da **sailen arteko lana eta zeharlerroko estrategia bermatzeko ardura** izan duen gune nagusia eta hala izaten jarraituko du. Gune hau politiko-teknikoa izango da eta sailen arteko elkarlana bermatzea izango du ezaugarri nagusi. Horrez gain, orain arte ez bezala, GKTak urtean gutxienez berariazko hiru bilera egingo ditu Berdintasunerako Planari segimendu zorrotza egin ahal izateko, ohiko bileretan gai asko egoten baitira eta Berdintasunerako Planaren inguruan landu beharrekoa diluitzeko arriskua handitu egiten da. Berdintasunerako Planaren segimendua foro honetatik egitea gakoa da hau baita neurri handi batean udalaren funtzionamendua bideratzen duen foroa eta, beraz, horrek zentralitatea ematen dio gaiari.

## 2. Berdintasunerako GKT

Berdintasunerako III. Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

### Parte-hartzaileak

- Udal-sailetako arduradunak.
- Gobernu-taldeko ordezkariak.
- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udalean genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Sailetako langileei genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten laguntza eskaintzea, izan ditzaketen zalantzei edo kezkei erantzuna emanaz.
- Berdintasunerako Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena egitea; egindako jardueri, erabilitako bitartekoei eta baliabideen jarraipenari buruzkoa, Berdintasunerako III. Planaren aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko.

- Ekintza puntual batzuk koordinatzea, beharrezkoa den kasuetan.

#### Funtzionamendua

- Gune honek, berariazko hiru bilera egingo ditu Berdintasunerako Planaren segimendua egiteko.
- Horrez gain, ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta bilera horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira beharrezkoa balitz.

Udaleko teknikari guztiek foro honetan parte hartzen ez dutela jakinik eta zeharlerroko estrategia garatu eta Plana benetan udal-jardueran integratzeko beraien parte hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoak direla jakinik, III. Planaren garapen urteetan zehar **arlo-buru bakoitzak urtero bere arloko lankideei Berdintasunerako Planaren markoan aurrera eraman beharreko ekintzen berri eman eta gaia lantzeko konpromisoa** hartu dute; modu honetara Plana udalaren jardunean ondo integratu ahal izateko.

Herritargoko Batzorde Informatiboa izango da, orain arte bezala, **maila-politikoan Berdintasunerako Planari segimendua egiteko espazioa**. Foro honen baitan Udalean ordezkariak duten alderdi guztiak egongo dira ordezkariak. Herritargoko Batzorde Informatiboetan hainbat gai lantzen direnez eta horrek berdintasunarekin lotutako gaiak lantzeko denbora-falta ekartzen duenez maiz, gutxienez urtean bi aldiz (6 hilabete behin) berariazko bilera bat egingo du Herritargoko Batzorde Informatiboak Planari segimendua egin ahal izateko.

### 3. Herritargoko Batzorde Informatiboa

Berdintasunerako III. Planaren segimendua egitea.

#### Parte-hartzaileak

- Udalean ordezkariak duten alderdietako ordezkari politikoak.
- Berdintasun zinegotzia.
- Berdintasun teknikaria.

#### Funtzioak

- Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Herritarrengandik proposamenik jasoko balitz horiek baloratzea eta, hala erabakiz gero, hauek aplikatzeko neurriak hartzea.

#### Funtzionamendua

- Gune honek, berariazko bi bilera egingo ditu Berdintasunerako Planaren segimendua egiteko.
- Horrez gain, ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira beharrezkoa balitz.

Lantalde egonkor horiez gain, modu puntualean berariazko lantaldeak sortzea aurreikusten da, hainbat ekintza puntualen garapena koordinatzeko. Talde hauek lanketa konkretuen bueltan osatuko dira, eta kasu gehienetan udal langilez osatuta egongo dira. Lantalde puntualak izango dira, beraz, ekintza edo lanketa konkretu baten ardura izango dutenak eta behin bere lana eginda desagertuko direnak.

### 3. Berariazko lantaldeak

Berdintasunerako III. Planean aurreikusitako lanketa puntualak aurrera eramatea.

#### Parte-hartzaileak

- Lanketa konkretu hori aurrera eramaten inplikaturik egongo diren pertsonak.

#### Funtzioak

- Planean aurreikusitako lanketa konkreturen bat aurrera eramatea.
- Lanketak egiteko sail edota pertsona ezberdinen arteko koordinazioa bermatzeko sortuko dira lantalde hauek.

#### Funtzionamendua

- Lantalde bakoitzak dinamika ezberdina izango du, beharren arabera.
- Lanketa abiatzean sortuko da lantaldea eta hau amaitzean desagertuko da, ez da talde egonkorrik sortzea aurreikusten printzipioz behintzat.

Udaleko ordezkariak osatutako talde horiez gain, **herritarrek ere berdintasun politiketan zeresana izan dezaten sustatzea da ideia**. Hala ere, une honetan ez daude baldintzak funtzio hau beteko duen talde bat sortzeko. Plan honen garapen urteetan zehar helburua herritarrekin – bereziki emakumeekin – zubiak eraikitzea eta beraien parte hartzea areagotzea da, etorkizunean interesa balego berdintasun politiketan eragiteko, Berdintasunerako Planari segimendua egiteko eta abarrerako espazio bat sortu ahal izateko, herritarren aldetik interesik balego behintzat. Planeko ekintzak, beraz, helburu hau lortzera bideratuta daude neurri batean.

Zubi horiek eraikitzeke, estrategia desberdinak aztertzen joango gara planaren garapenean zehar, baina une honetan, hauek dira bidea egiten joateko erabiliko ditugunak:

- Emakumeen jabeakuntza eskolaren bidez emakume talde autonomoak sortzen laguntzea
- Hezkuntza formaleko eragileekin elkarlana sendotzea, bertatik ere taldeak sor daitezkeen aztertzeko
- Herriko elkarteekin udalak dituen hartu-emanerako egituretan berdintasunean aurrerapausoak ematen jarraitzea; besteak beste elkarteetatik gai honen inguruan egiten diren eskakizunak jaso, aztertu eta horiei erantzuteko baliabideak zeintzuk izan daitezkeen identifikatuz

Azken batean, politika publikoetan, eta bereziki berdintasun politiketan, berariazko garrantzia du herritarren, eta kasu honetan bereziki emakumeen, parte hartzeak, beraiantzat egiten diren politikak diren heinean. Hori dela eta, oraingoz Berdintasun politiketan berariaz parte hartzeko espazio propiorik ez badago ere, hori sortu artean bestelako bideak baliatuko ditugu emakumeen parte hartzea bermatu eta beraien ahotsa entzuteko; berdintasun politiken garapenean aintzat hartua izan dadin.

Aipatu ditugunak Urnietako Udalak Berdintasunerako Planari zein berdintasun politikei oro har segimendua egiteko berariaz sortuko edo martxan jarriko dituen egiturak dira. Hala ere, horiez gain **udalaz gaindiko bestelako koordinazio espazioetan ere parte hartzen jarraituko du** Berdintasun Sailak edota Udalak berak; orain arte Urnietako Udalak ez zuen hainbat espaziotan parte hartzeko aukerarik Berdintasun teknikaririk ez zuelako, beraz, orain foro gehiagotan parte hartzeko aukera izango du. Horien artean daude BERDINSAREA, Gipuzkoak Foru Aldundiak sustatutako guneak, Beterri Buruntzaldeako foro feminista... Horiez gain, berdintasunaren bidean lanean dabiltzan gainerako Udal edota entitateekin koordinatzeko bestelako espazioetan ere parte hartzea baloratuko eta sustatuko du Urnietako Udalak.

## 12.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Berdintasun Sailak urtero izango du aurrekontua, eta aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, Urnietako Udalak urtero kudeaketa plana aurrera eraman ahal izateko beste baliabide zuzenduko ditu Berdintasun Sailera, edota Planeko ekintzak garatzeaz arduratuko diren beste sailetara; izan ere, gainontzeko sailek ere Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

2022rako Berdintasun sailak 40.000€-ko aurrekontua izango du Planeko ekintzak aurrera eraman ahal izateko. Urtetik urtera aurrekontu hori beharretara egokitzen joan beharko da Udala.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

## 12.3. Planaren ebaluazio-sistema

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Planaren **betetze-maila zein den** eta martxan jarritako **ekimenez zer inpaktu izan duten jakiteko**. Zentzu horretan, hiru ebaluazio-mota burutuko ditu Urnietako Udalak: betetze-mailari dagokiona, emaitzei dagokiena eta inpaktuari dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo helburuak lortu ahal izango ditugu:

- Urnietako Berdintasunerako III. Plana aplikatzeak eman dituen emaitzak ezagutzea.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Berdintasun-politikak erraztu edo lagundu dituzten faktoreak identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko inpaktua edota eragina zein den ezagutzea.

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua:** Planak Udal barruan eta udalerrian izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.



- **Eraginkortasuna:** Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura:** Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea:** ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea:** Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.

### 12.3.1. Inpaktu adierazleak

Planari segimendua egin eta honen inpaktua zenbatekoa izan den neurtzen laguntzeko inpaktu adierazle batzuk zehaztu ditugu, helburuekin lotuta. Modu honetara, betetze-mailaren segimendua egiteaz gain, egindako lanaren inpaktua neurtzea ahalbidetuko diguten adierazle batzuk ere izango ditugu. Hona hemen inpaktu-adierazleak, lan-ildoka:

#### Gobernu ona

HELBURU ESTRATEGIKOAK	Inpaktu adierazleak
<b>GO1. EMAKUMEEN* ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA</b>	<p>Berdintasun politikak garatzeko Udalaren urtekako aurrekontu kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den</p> <p>Aurrekontuaren zein portzentaje bideratu den gobernantzara, zein herritarrei eskainitako jardueretarako eta zein komunikaziorako.</p>
<b>GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA</b>	<p>Kudeaketa-planaren segimenduari ekarpena egin dioten sail-kopurua</p> <p>Berdintasuneko GKTk egindako bilera-kopurua eta bertan parte hartu duten pertsona-kopurua eta sail-kopurua.</p> <p>Udal-teknikari eta langileekin egindako bilera-kopurua, bilera horietan parte hartu duten pertsona-kopurua eta ordezkatura egon diren sail-kopurua.</p> <p>Sortu den berriazko lantalde-kopurua eta horietan parte hartu duten sail-kopurua.</p> <p>Berriazko lantaldeetatik bideratu diren ekintza-kopurua.</p> <p>Herritargoko Batzorde informatiboan berdintasunarekin lotutako gaiak landu diren bilera-kopurua.</p> <p>Berdintasun teknikariak udalaz gaindi parte hartzen duen foro-kopurua.</p>
<b>GO3. BERDINTASUNAREN ALDE EGITEN DEN LANA BEHAR BEZALA KOMUNIKATZEA</b>	<p>Udal berdintasun-politikak zabaltzeko erabiltzen diren euskarri eta bide-kopurua</p> <p>Berdintasun politikak zabaltzeko bideetan dagoen hartzaile-kopurua generoaren arabera bereizita (neurgarria den kasuetan)</p> <p>Berdintasunarekin lotutako ekimenak eta lanketak zabaltzeko aliatu diren eragile-kopurua.</p> <p>Urtean burututako komunikazioari buruz herritarren (eragileak edo/eta herritar arruntak) feedback-a jasotzeko bideak identifikatu.</p> <p>Herritarrengandik jasotako feedback-a</p>
<b>GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU ETA HORRETARAKO BEHARREZKO FORMAKUNTZA BERMATZEA</b>	<p>Udalean berdintasunaren alorrean egindako trebakuntza-kopurua.</p> <p>Udalean berdintasunaren alorrean trebakuntza jaso duten pertsona-kopurua, generoaren eta sailaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa.</p> <p>Berdintasuneko trebakuntza jaso duten udal-ordezkarri kopurua, generoaren arabera bereizita.</p> <p>Gutxienez lanketa batean datuak generoaren arabera bereizita ustiatu dituzten sail-kopurua.</p>

	Komunikazio ez-sexista eta inklusiborako gida lantzeko trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta sailaren arabera bereizita, eta balorazioa.
	Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa egiten dela bermatzeko errebisatutako euskarri-kopurua.
	Kontratuetan berdintasun-klausulak aplikatzeko irizpideak aplikatu dituzten sail-kopurua.
	Berdintasunean konpromisoren bat hartu duten elkarte-kopurua eta konpromiso horiek betetzen dituzten elkarte-kopurua.
	Elkarteekin egindako lanketan hartu dituzten konpromisoak zerrendatu eta horien segimendua egin.
	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta sailaren arabera.
	Hasieratik genero-ikuspegia txertatu duten egitasmo-kopurua eta lanketa hau egin duten sail-kopurua.
	Parte-hartze prozesuetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita.
Elkarteekin elkarlanean sortu daitezkeen egoerak interpretatu eta gainditzeko trebakuntzan parte hartu duten pertsona kopurua, generoaren eta sailaren arabera bereizita, eta balorazioa.	

**Emakumeen\* ahalduntzea**

HELBURU ESTRATEGIKOAK	Inpaktu adierazleak
<b>EA1. EMAKUMEEN* AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEA</b>	Jabekuntza Eskolan parte hartzen duten emakume*-kopurua, profilaren arabera.
	Jabekuntza Eskolaren balorazio-saioan parte hartu duten emakume*-kopurua, profilaren arabera, eta egiten duten balorazioa.
	Beste Jabekuntza Eskolen berri izateko jardunaldian parte hartu duten emakume*-kopurua, profilaren arabera, eta egiten duten balorazioa.
	Jabekuntza Eskolako ikastaroei esker sortu diren talde egonkor kopurua.
	Urnietan sortutako emakume*-talde edota talde-feminista autonomo-kopurua.
	Berdintasun kontseiluak ezagutzeko jardunaldian parte hartu duten emakume*-kopurua eta hauen asebetetzea.

**Ekonomia eta gizarte-antolaketa eraldatzea**

HELBURU ESTRATEGIKOAK	Inpaktu adierazleak
<p><b>EGE1. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA</b></p>	<p>Feminismoarekin eta berdintasunarekin lotutako edukiak lantzen dituzten ekimen/lan-kopurua.</p> <p>Berdintasunaren inguruko trebakuntza jaso duten elkarte-kopurua, saio horietan parte hartu duten pertsona-kopurua generoaren arabera bereizita eta egiten duten balorazioa.</p> <p>Gizonezkoen erantzunkidetasuna eta maskulinitate-eredu berriak lantzeko saioetan parte hartu duten gizon-kopurua eta egiten duten balorazioa.</p> <p>Hezkuntzako koordinazio gunean hezkidetzaren gaia landu den bilera-kopurua.</p> <p>Gazte zerbitzuko hezitzaileei eskainitako trebakuntzan parte hartu duten langile-kopurua, eragilea eta generoaren arabera bereizita, eta hauek egiten duten balorazioa.</p> <p>Guraso eskolan parte hartzen duen pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa.</p> <p>Haur eta gazteekin lan egiten duten langileei berdintasunean eta hezkidetzan eskainitako trebakuntzan parte hartu duten langile-kopurua, generoaren eta postuaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa.</p> <p>Eskolengandik jasotako eskaera-kopurua eta hauei emandako erantzunak</p> <p>Hezkuntza sailetik bideratu den dirulaguntza-kopurua eta hauetatik zenbatek barneratzen duten genero-ikuspegia/hezkidetz-ikuspegia.</p>
<p><b>EGE2. EMAKUMEEN* AUTONOMIA EKONOMIKOA</b></p>	<p>Eskualdetik bideratutako langabezia dauden emakume* kopurua eta gizarte zerbitzuetatik mankomunitateko baliabideetara (trebakuntzak eta abar) bideratu den langabezia dagoen emakume*-kopurua.</p> <p>Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen eta azpikontratutako zerbitzuen kontratazioetan berdintasun pleguak barne hartzen dituzten kontratu-kopurua.</p> <p>Betebeharren eta dirulaguntzen berri emateko kontaktatutako enpresa-kopurua.</p>
<p><b>EGE3. ZAINZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA</b></p>	<p>Zaintza-lanen garrantziaren inguruan gogoeta egiteko antolatutako ekimenetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita (neurtu daitekeen kasuetan).</p> <p>Urnietako enpresen/komertzioen egoera aztertze galdetegian parte hartu duten erakunde-kopurua.</p> <p>Zaintzaileak kontratatu aurretik aholkularitza eskaini zaien pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita.</p> <p>Zaindarien taldean parte hartzen duten pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita, eta hauek egiten duten balorazioa.</p> <p>Espazio publikoak inklusiboagoak izan daitezen egindako lanketa eta esku-hartze kopurua.</p>

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

HELBURU ESTRATEGIKOAK	Inpaktu adierazleak
<b>IM1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA AREAGOTZEA</b>	Eskoletako prebentzio programen inguruko hausnarnetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoa eta eragilearen arabera bereizita.
	Gazteentzat indarkeria matxistaren prebentziorako eta nesken ahaldunderako antolatutako ekintzetan parte hartu duten gazte-kopurua, generoaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa.
	Indarkeria matxistaren aurrean nola jardun lantzeko tailerretan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta eragilearen arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa.
<b>IM.2. INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUMEEN* ARRETA ETA ONERTATZEA BERMATU, AHALDUNTZERAKO IBILDIDEAK ESKAINIZ</b>	Erakunde arteko koordinazio mahaiak egin dituen bilera-kopurua eta hauetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta eragilearen arabera.
	Indarkeria matxistarekin lotuta udaltzaingoa eta gizarte zerbitzuen arteko koordinaziorako egindako bilera-kopurua.
	Udal-langileekin egin den indarkeria matxistari buruzko trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta lanpostuaren arabera, eta egiten duten balorazioa.
	Jai batzordearekin protokoloa lantzeko bileretan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta eragilearen arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeentzako* antolatutako talde-jarduera kopurua, jardueretara gonbidatutako emakume*-kopurua eta horietan parte hartu duten emakume*-kopurua.

12.3.2. Urteko kudeaketa planak

Urnietako Berdintasunerako III. Plana garatzeko urteko kudeaketa-planak prestatuko ditu Udalak urtero, Planaren garapena errazte aldera.

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat prestatuko da, aintzat hartu beharreko helburu eta neurri konkretuak zehaztu ahal izateko. Programazio horiek Berdintasun Sailak landuko ditu, eta eragindako gainerako udal-sailekin kontrastatu eta landuko ditu, besteak beste Berdintasunerako GKTaren bitartez. Planean ekintza bakoitza zer urtetan burutu behar den zehaztuta dago; hala ere, urtekako planek jarraipena erraztuko dute eta momentuko beharretara egokitzea ahalbidetu. Kudeaketa plan hau, gainera, sail bakoitzera egokituko da. Hau da, Exceleko tresnak aukera ematen du ekintza bakoitzaren arduraduna nor den edo nortzuk diren filtratzeko eta, beraz, sail bakoitzari berari urte horretan dagozkion ekintzak bakarrik emateko.

- Urte bakoitzaren hasieran, Berdintasun Sailak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion memoria idatziko du; horretarako, udal-sailek emandako informazioa erabiliko du.
- Urtez urteko memoria-txostenak Planaren jarraipenerako guneetan aurkeztuko dira.

### 12.3.3. Planaren segimendua

Urnietako Berdintasunerako II. Planari segimendua egin ahal izateko, Elhuyarrek Excel tresna bat sortu du, Berdintasun teknikariari segimendu hau era erraz batean egitea ahalbidetzeko.

Excel dokumentua hiru orrialde edo ataletan banatuta dago: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Plana bera osotasunean eta inpaktu-adierazleei dagokiena.

Lehenengo atalak Planaren argazki orokorra zein den ikusten lagunduko digu, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolako den ikusten.

Urnietako III. Berdintasun Plana (2021-2025)		elhuyar ezagutzuz aldatzea	Urnietako udala
GOBERNU ONA	GO1. EMAKUMEEN* ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA	GO1.1. Genero zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa esplizituki hartzea eta jakitera ematea.	1 ekintza
		GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoaren esku jartzea	2 ekintza
	GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREGOTZEA ETA HOBETZEA	GO2.1. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egitea, ebaluazioa eta koordinazioa bermatzea	8 ekintza
		GO2.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlaneko guneekin hartu-erama sustatzea	1 ekintza
	GO3. BERDINTASUNAREN ALDE EGITEN DEN LANA BEHAR BEZALA KOMUNIKATZEA	GO3.1. Udalaren berdintasun-politikak eta sail bakoitzak berdintasunaren alde egiten den lana udaleko langile guztiengana iristea	3 ekintza
		GO3.2. Herritarrei begirako komunikazioa lantzea, egiten den lanak ikusgarritasuna izan dezan.	4 ekintza
	GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU ETA HORRETARAKO BEHARREZKO FORMAKUNTZA BERMATZEA	GO4.1. Udal langile eta ordezkari-politikoentzako berdintasunaren beharrezko trebakuntza eskaintzea	3 ekintza
		GO4.2. Udalaren jardueran genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea	19 ekintza
			41 ekintza
EMAKUMEEN* AHALDUNTZEA	EA1. EMAKUMEEN* AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEA	EA1.1. Jabeakuntza Eskola dibertsifikatzea, ikuspegi intersektionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea	7 ekintza
		EA1.2. Herriko emakumeen* arteko sareak sortu daitezzen eta herrian parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea	10 ekintza
			17 ekintza
EKONOMIA ETA GIZARTE ARIKUNTZEA	EGE1. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIDA DELA AITORTZEA	EGE1.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte-eredu bateranzko oinarri gisa	9 ekintza
		EGE1.2. Urnieta herri hezikidetzailera izateko bidean urratsak ematea	4 ekintza

Bigarren atalean Planaren zehaztasunak ikusi ahal izango ditugu. Ekintza guztiak zehaztasunez, bakoitza zein urtetan garatu behar den, arduraduna zein den eta abar. Gainera, atal honek ekintzen betetze-mailaren segimendua egin eta urtez urte zer egin den eta zer ez jasotzeko aukera ere ematen du. Honela, urtez urte ekintzen betetze-maila zein den eta honen inguruko oharra jasotzen joango gara, segimendu estua egitea ahalbidetuz.

Urnietako III. Berdintasun Plana (2021-2025)				elkuyar <sup>7</sup> eragitur aldatzea		Urnietako udala							
LAN-ILDOAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNA (K)	BETETZE-MAILA 2021	BETETZE-MAILA 2022		
				2021	2022	2023	2024	2025					
GO1. EMAKUMEEN <sup>7</sup> ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KONPRMISO POLITIKOA	GO1.1. Genero zeharrotasun estrategia garatzeko konpromisoa espizitu hartzea eta jakitera ematea.	GO 1.1.1. Berdintasunerako III. Plana Udabatzan onartu eta heritarrei komunikatu.		x						Udalbatza			
			GO 1.2.1. Berdintasun politikak aurrera eramateko urteko kudeaketa planean aurreikusitako ekintzak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatu eta honen kudeaketaren kontrola egin.	x	x	x	x	x			Udalbatza		
GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA	GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoen esku jartzea	GO 1.2.2. Berdintasun politikak aurrera eramán ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak bermatu.		x	x	x	x	x		Udalbatza			
		GO 2.1.1. Urtero Berdintasun Planari lotutako kudeaketa-plana prestatu eta sail bakoitzarekin landu bere ingulikatzen duten ekintzak sailko kudeaketa-planean txertatu ditzaen.	x	x	x	x	x			Berdintasuna	GKTKo koordinatzailea		
		GO 2.1.2. Urteroko kudeaketa-planei eta Planaren betetze-mailari etengabe segimendua egin, beharrezko den kasuetan neurri zuzentzaileak aplikatuz.	x	x	x	x	x			Berdintasuna			
		GO 2.1.3. Ute amaieran Planaren garapeneren inguruko memoria bat egin, urte osoan egindako lana jasotzen duena eta heritagoko batzorde informatiboan azaldu.	x	x	x	x	x			Berdintasuna			
		GO 2.1.4. Udako kudeaketa plan orokorra eta berdintasuneko kudeaketa plana koherenteak izan daitezen jarraipen eta ebaluaziorako tresna egokia sortu.	x							Berdintasuna	GKTKo koordinatzailea		
		GO 2.1.5. Urtean, gutxienez, berariazko Berdintasuneko GKTKo hiru bilerak egin Planari segimendua egiteko.	x	x	x	x	x			Berdintasuna			
		GO 2.1.6. Arloburu bakoitzak urtero bere arloko lankidei berdintasun planaren markan aurrera eramán beharrezko ekintzen berri ematea, berdintasun politikari zeharretako izaera azpimarratuz, gutxienez berdintasun planaren berri izan dezaten.	x	x	x	x	x			Arloburuak			
		GO 2.1.7. Lau hilabeteko urte horietarako planifikatuta dauden ekintzak aurrera eramateko berariazko lantaldeak sortuta dauden eta nola funtzionatzen duten aztertuz, beharrezkoak baliz	x	x	x	x	x			Berdintasuna			

**Inpaktu adierazleen segimendua** hirugarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburuekin lotzen diren inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu (aurrez aurrez egindakoak), egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.

**INPAKTU ADIERAZLEAK**

LAN-ILDOAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	Inpaktu adierazleak	2021	2022	2023	2024	2025
GO1. EMAKUMEEN <sup>7</sup> ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KONPRMISO POLITIKOA		Berdintasun politikak garatzeko Udalaren urtekako aurrekontu kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den					
		Aurrekontuaren zein portzentaje bideratu den gobernantzara, zein heritarrei eskainitako jardueretarako eta zein komunikaziorako.					
GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA		Kudeaketa-planaren segimenduari ekarpena egin dioten sail-kopurua					
		Berdintasuneko GKTK egindako bilera-kopurua eta bertan parte hartu duten pertsona-kopurua eta sail-kopurua.					
		Udal-teknikari eta langileekin egindako bilera-kopurua, bilera horietan parte hartu duten pertsona-kopurua eta ordezkaturak egon diren sail-kopurua.					
		Sortu den berariazko lantalde-kopurua eta horietan parte hartu duten sail-kopurua.					
		Berariazko lantaldeetatik bideratu diren ekintza-kopurua.					
		Herritargoko Batzorde informatiboan berdintasunarekin lotutako gaiak landu diren bilera-kopurua.					

**Tresna elikatzeaz Berdintasun teknikaria arduratuko da nagusiki**; hala ere, aproposena litzateke arlo-buru bakoitzak dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea. Honen segimendua egiteko sailarteko GKT-ko bilerak aprobe txatu ahalko dira.

Informazio hau guztia, aurrez aipatutako memoria-txostenak elikatze baliatu daiteke.

## 13. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei Udalaren asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko ere. Gainera, planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren analisia egiteko prozesuan zehar identifikatu den ahulguneetako bat da hain justu komunikazioa, herritarrei ez baitzaie iristen Udaletik egiten den lanaren berri.

Hori dela eta, hurrengo urteetan Berdintasunerako Planari lotutako komunikazioan sakontzea zein berdintasun politikei lotutako komunikazioa nola egin, oro har, lantzea da erronketako bat. Horretarako urtero, urte hasieran, kudeaketa-planean aurreikusitako ekintzak zeintzuk diren eta horiek aurrera eramateko dauden komunikazio une garrantzitsuak identifikatuko dira, eta baita hauek nola komunikatuko diren adostu ere.

Planaren garapenean 3 komunikazio-une garrantzitsu egongo dira:

### 1. Hasierako komunikazioa:

Behin Berdintasunerako III. Plana onartuta, horren berri emango da bai Udal barruan baita herrian ere:

- Udal-langile guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean arduraz zehatzak dituzten langileei:
  - Prozesuan zehar Planaren berri izan dutenez kontraste-saioen bidez, izan dute jada Planaren berri, beraz, ez dugu aurkezpen saiorik egingo. Hala ere, arlo-buruek gaia landuko dute urte hasieran kudeaketa-plana lantzean arlo bakoitzari dagozkion ekintzekin eta, hartara, Plana diseinatu dela gogorarazi.
  - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Plana sozializatzeko euskarriak ere bidaliko zaizkie.
- Ordezkarri politiko guztiei:
  - Planaren nondik norakoak sakonago azaltzeko kontraste-saioa egin dugu beraiekin Plana onartu aurretik, beraz, sakontasunez ezagutzen dute jada.
  - Ordezkarri politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Plana sozializatzeko euskarriak ere bidaliko zaizkie.
- Herritarrei:
  - Prentsa ohar baten bidez prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Planaren nondik norako nagusien berri emateko euskarri bat sortuko dugu sare sozialen bidez eta Udaleko bitartekoen bidez zabaltzeko.
  - Prozesuan parte hartu duten hainbat herritarren parte-hartzearekin bideo bat grabatu dugu Planaren berri emateko eta hori ere sare sozialen bitartez zabalduko dugu, jendeak Planaren berri izan dezan.
  - Plana Udaleko webgunean txertatuko da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.
  - Prozesuan parte hartu duten pertsonei dokumentazioa emailez bidaliko diegu.
  - Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun Sailera jotzeko aukera izango du.



## 2. Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan

- Udal-mailan:
  - Udal-mailan dauden segimendurako egituren bidez emango zaie langileei Planaren garapenaren berri; horretarako aurrez aipatutako espazioak erabiliko dira.
- Herri-mailan: Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - Udaleko webgunean Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - Udaleko aplikazioaren bidez ere komunikatuko dira Planarekin lotutako ekintza eta ekimen ezberdinak.
  - Herriko emakume eta eragileekin sortutako foro ezberdinetan (hala nola, Jabetze Eskolako erabiltzaileekin egingo diren urteroko balorazioetan) Planaren berri emango da eta ahal den heinean honen segimendua egiteko espazioak ahalbidetu, herritarrek interesa balute behintzat.

## 3. Planaren amaierako komunikazioa

Berdintasunerako II. Plana osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Udal barruan zein herri-mailan. Hau zehazki nola egingo den Planaren indarraldia amaitzean erabakiko da, momentu horretan abiatutako prozesuaren arabera eta horrekin modu koherentean.